AGINDUA, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena, zeinaren bidez aldez aurreko onarpena ematen baitzaio Euskadiko Finka Administratzaileen Kontseilu Profesionala sortzeko dekretu-proiektuari.

ORDEN de la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y del consejero de Vivienda y Agenda Urbana de aprobación previa del proyecto de Decreto por el que se crea el Consejo Profesional de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedea da xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzea.

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, tiene por objeto regular el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general.

Lege horren 12.1 eta 13.1 artikuluetan ezarritakoa aplikatuz, 2026ko urriaren 28an, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren agindu bidez hasi zen Euskadiko Finka Administratzaileen Kontseilu Profesionala sortzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura.

En aplicación de lo establecido en los artículos 12.1 y 13.1 de la citada Ley, con fecha 28 de octubre de 2026 se inició por Orden de la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y del consejero de Vivienda y Agenda Urbana el procedimiento de elaboración del proyecto de decreto por el que se crea el Consejo Profesional de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi.

Azaldutakoarekin bat etorriz, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluaren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

De conformidad con lo anteriormente expuesto y en virtud del artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de carácter General, dispone que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio,

C/Donostia- San Sebastian 1– 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 01 85 06 | e-maila: elkarfun@euskadi.eus

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8VTD-08N8
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: MARIA UBARRECHENA CID | 2026/11/09 16:46:19
SINATZAILE / FIRMANTE: DENIS ITXASO GONZALEZ | 2026/11/11 14:04:40

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskadiko Finka Administratzaileen Kontseilu Profesionala sortzeko lehen dekretu-proiektua onartzea

Bigarrena .- Agintzea prozedurarekin jarraitzeko behar diren izapideak egiten jarrai dezatela, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoen datan

RESUELVO

Primero. – Aprobar el primer proyecto de decreto por el que se crea el Consejo Profesional de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi.

Segundo. - Ordenar que prosigan los trámites necesarios para la continuación del procedimiento conformidad con la Ley 6/2022 de 30 de junio, del procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

.

Vitoria-Gasteiz, a fecha de las firmas electrónicas

María Ubarrechena Cid

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILBURUA
LA CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Denis Itxaso González

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILBURUA
EL CONSEJERO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

DEKRETU-PROIEKTUA, EUSKADIKO FINKA-ADMINISTRATZAILEEN KONTSEILUA SORTZEN DUENA.

Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dizkio, oso-osorik, lanbide-elkargoen eta tituludun lanbideetako jardueraren alorreko eskumenak, beti ere, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa errespetatuz.

Eskumen hori gauzatzeko, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea eman zen. Lege horren 41.1 artikuluak lanbide-elkargoak batu eta lanbide-kontseilu bakarra sortzeko aukera ematen du, baldin eta tituludun lanbideak elkargo-antolaketa baldin badu.

Aipatutako artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren babespean, Gipuzkoa-Arabako eta Bizkaiko finka-administratzaileen lurralde-elkargoek Euskadiko Finka-Administratzaileen Kontseilua sortzea erabaki zuten, eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailera jo zuten ekimena aurrera ateratzeko.

Bi dira ekimen horren helburu nagusiak: batetik, lanbideari tresna egoki bat eskaintzea ordenamendu juridikoak lanbide-korporazioei esleitzen dizkien helburuak eraginkortasunez bete ahal izateko eta, bestetik, lanbide-korporazio horien egitura egokitzea autonomia-erkidegoaren lurralde-errealitateari, eta administrazio publikoekin oro har eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin dituzten harremanak erraztea eta azkartzea.

Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez eratuko da, nortasun juridikoa bereganatuko du dekretua indarrean sartzen denetik eta, halaber, jarduteko gaitasuna izango du haren gobernu-organoak eratzen direnetik.

Ondorioz, Euskadiko Finka-Administratzaileen Kontseiluak ahalmen osoarekin jardun dezan, nahitaezkoa da aldez aurretik haren gobernu-organoak eratzea. Horretarako, sistema eraginkor eta erraza aukeratu da, elkargoen autonomia errespetatuko duena eta Kontseiluko partaide diren elkargoen ordezkagarritasuna bermatuko duena.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin batera izapidetu du dekretu hau, azken sail horrek baitu lanbidearen edukien inguruko eskumena, arestian aipatutako azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 56.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Horrenbestez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren eta Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko XXXXren XX(e)ko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Sorrera.

1. Euskadiko Finka-Administratzaileen Kontseilua eratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan lanbidearen ordezkaritza gorena izan dadin eta lanbidea defenda dezan, gizartearen interes eta behar orokorrak kontuan hartuta.

2. Kontseiluak nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 41.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Kontseiluak nortasun juridikoa bereganatuko du dekretu hau indarrean sartzen denetik, eta, halaber, jarduteko gaitasuna izango du haren gobernu-organoak eratzen direnetik.

2. artikulua.- Osaera.

1. Kontseiluak organo hauek izango ditu gutxienez: osoko bilkura, gobernu-organoa eta lehendakaritza-organoa.

2. Gainera, beste organo batzuk ere izan ditzake, eta estatutuetan ezartzen diren osaera eta zereginak izango ditu haietako bakoitzak.

3. artikulua.- Zereginak.

Hauek izango dira Kontseiluaren zereginak: azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluan aipatzen diren izaera orokorrekoak; estatutuetan jasotzen direnak, eta autonomia-erkidegoko administrazioak zein toki- edo foru-administrazioek eskuordetzan eman diezazkiotenak, aipatutako legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lehenengo xedapen gehigarria.- Lehenengo estatutuak egitea.

1. Batzorde bat arduratuko da Kontseiluaren lehenengo estatutuak egiteaz, eta, bertan, Kontseiluko partaide diren elkargo guztietako ordezkariak egongo dira, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 46.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Dekretu hau argitaratu eta gehienez hilabeteko epean, kudeaketa-batzorde bat eratuko da. Batzordearen helburua lehenengo estatutuak egitea da, eta Profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 35. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

3. Zuzenbide publikoko korporazioa dela kontuan hartuta, estatutuak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.

4. Estatutuak onartu baino lehen, kudeaketa-batzordeak elkargoen eta elkargokideen aurrean jarriko ditu estatutuak, gutxienez hilabete batez, eta epe horretan egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bigarren xedapen gehigarria.- Estatutuak egiaztatzea eta argitaratzea.

Estatutuak onartu ondoren, Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari helaraziko dizkio, profesionalen elkargo eta kontseiluen alorrean eskumena duen sailaren bitartez, legearekin bat datozela egiazta dezan (azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 33.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren 45.3 artikuluarekin lotuta), eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua eman dezan.

Hirugarren xedapen gehigarria .- Gobernu-organoen eraketa.

1. Estatutuak argitaratu ondoren, Kontseiluko gobernu-organoak eratuko dira, indarrean dagoen araudiaren eta estatutuetan bertan xedatutakoaren arabera.

2. Gobernu-organoen eraketa ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Laugarren xedapen gehigarria.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna.

1. Profesionalen kontseiluek, zuzenbide publikoko korporazioak diren aldetik, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bete beharko dute, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera. Zehazki, 19 artikuluan ezartzen da botere publikoek eta funtzio publikoak dituzten erakundeek berdintasun-printzipioa txertatu behar dutela beren jarduera guztietan, eta, berariaz, hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabili behar dutela. Horrenbestez, kontseilu profesionalaren estatutuak berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egin beharko dira, eta bereziki zaindu beharko da hizkera ez-sexista erabiltzen dela.

2. Era berean, bai kudeaketa-batzordea eratzean, bai haren gobernu-organoko kideak hautatzean, neurri egokiak hartu behar dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

Azken xedapen bakarra. - Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko XXXXren XX(e)(a)n.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.

PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE CREA EL CONSEJO DE ADMINISTRADORES Y ADMINISTRADORAS DE FINCAS DE EUSKADI

El artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi competencia exclusiva en materia de Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

Dicha competencia ha sido objeto de desarrollo mediante la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, cuyo artículo 41.1 establece la posibilidad de constitución de un único Consejo profesional mediante la agrupación de los correspondientes Colegios Profesionales siempre que una profesión titulada disponga de organización colegial.

Al amparo de lo establecido en el párrafo 3 del citado artículo, los Colegios Territoriales de Administradores de Fincas de Gipuzkoa-Álava y Bizkaia previo acuerdo favorable al efecto, instrumentaron la correspondiente iniciativa ante el Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno al objeto de que se procediese a la creación del Consejo de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi.

Se pretende de este modo, por una parte, dotar a la profesión de un valioso instrumento que coadyuve al cumplimiento eficaz de los fines que el ordenamiento jurídico otorga a las corporaciones profesionales y por otra, adecuar sus estructuras a la realidad territorial autonómica facilitando y agilizando sus relaciones con todas las Administraciones públicas en general y la Administración General de la Comunidad Autónoma en particular.

El consejo se creará mediante decreto del Gobierno Vasco, adquirirá personalidad jurídica desde su entrada en vigor, y capacidad de obrar desde la constitución de sus órganos de gobierno.

En consecuencia, la plena operatividad del Consejo de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi exige la previa constitución de sus órganos de gobierno, para lo cual se ha optado por regular un sistema que reúna las características de eficacia y simplicidad, respetuoso con la autonomía colegial y garante de la representatividad de los Colegios que formen parte del mismo.

El presente Decreto ha sido objeto de tramitación conjunta por parte del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, competente en relación con la profesión en aplicación del artículo 56.3 de la mencionada Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

En su virtud, a propuesta de la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno y el consejero de Vivienda y Agenda Urbana, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión de XX de XXXX de 2026,

DISPONGO:

Artículo 1.- Creación.

1. Se crea el Consejo de Administradores y Administradoras de Fincas de Euskadi para la suprema representación y defensa de la profesión en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2. El Consejo tendrá personalidad jurídica y plena capacidad de obrar, de conformidad con lo previsto en el artículo 41.5 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales.

3. El Consejo adquirirá personalidad jurídica desde la entrada en vigor del presente Decreto y capacidad de obrar desde la constitución de sus órganos de gobierno.

Artículo 2.- Composición

1. El Consejo habrá de contar necesariamente con un órgano plenario y de gobierno, así como con un órgano presidencial.

2. Facultativamente podrá contar con otros órganos, cuya composición y funciones se determinarán en los estatutos.

Artículo 3.- Funciones

Son funciones propias del Consejo las que se establecen con carácter general en el artículo 42 de la mencionada Ley 18/1997, de 21 de noviembre, así como las que se establezcan en los estatutos y las que pudieran delegarle las Administraciones autonómica, foral o local de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 de la mencionada Ley.

Disposición adicional primera. - Elaboración de los primeros estatutos.

1. La elaboración de los primeros estatutos del Consejo se efectuará por una Comisión en la que estén representados todos los Colegios que forman parte del Consejo conforme a lo previsto en el artículo 46.2 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

2. En el plazo máximo de un mes desde la publicación del presente Decreto, se constituirá una comisión gestora cuya finalidad es elaborar los primeros estatutos, que se regirá por lo establecido en el artículo 35 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

3. Considerando la condición de corporación de derecho público del Consejo, los estatutos se redactarán en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4. Con carácter previo a su aprobación la comisión gestora someterá los estatutos a información pública de los Colegios y las personas colegiadas por un plazo no inferior a un mes durante el cual podrán formular las alegaciones que estimen pertinentes.

Disposición adicional segunda. - Verificación y publicación de estatutos.

Una vez aprobados los estatutos la Comisión los comunicará a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento competente en materia de colegios y consejos profesionales, para verificar su adecuación a la legalidad, de conformidad con lo previsto en el artículo 33.5 en relación con el artículo 45.3 de la citada Ley 18/1997, de 21 de noviembre, y ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Disposición adicional tercera. - Constitución de los órganos de gobierno.

1. Tras la publicación, se constituirán los órganos de gobierno del Consejo conforme a lo previsto en las normas estatutarias y demás normativa de aplicación.

2. La constitución de dichos órganos será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Disposición adicional cuarta. - Igualdad entre mujeres y hombres

1. Los consejos profesionales, en su condición de corporaciones de derecho público, están sujetos al cumplimiento efectivo del principio de igualdad y no discriminación, conforme a lo dispuesto en el Decreto Legislativo1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Concretamente, en su artículo 19 se establece la obligación de los poderes públicos y entidades con funciones públicas de integrar el principio de igualdad en todas sus actuaciones, incluyendo, de manera expresa, el uso de un lenguaje no sexista e inclusivo. Por consiguiente, los estatutos del consejo profesional deberán elaborarse de conformidad con la normativa vigente en materia de igualdad, velando especialmente por el empleo de un lenguaje no sexista.

2. Asimismo, tanto al constituir la comisión gestora como al elegir las personas integrantes de su órgano de gobierno, se han de adoptar las medidas oportunas para lograr una presencia equilibrada de mujeres y hombres de conformidad con lo establecido en la normativa aplicable para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Disposición final única. - Entrada en vigor.

El presente decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a xxxxx de xxxxxxxxx de 2026.

El lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL.

La consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno,
MARÍA UBARRECHENA CID.

El consejero de Vivienda y Agenda Urbana
DENIS ITXASO GONZÁLEZ